

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Euroeskualdeak diruz lagundutako 2019ko lehen saioko proiektu deialdira aurkezteko epea zabaldu da


*Eleaniztasuna, gazteen mugikortasuna, kultura eta euroeskualdeko gizartea ardatz hartuta 450.000 euro bideratuko dira*

Asteartea, 2019.eko martxoak 26

Akitania Berria- Euskadi-  
Nafarroa

Euroeskualdeak [2019ko lehen saioko diru-laguntzen deialdia](#)

aurkeztu du, "Euroeskualdeko gizartea" izenpean eta 450.000 euroko aurrekontuarekin. Deialdiak kultura, hezkuntza, gazteria, lanbide heziketa, kirola eta eleaniztasuna hartzen ditu beregain.



Diru-laguntzek hiru eskualdeetan [2014-2020 Plan Estrategikoaren](#) barruan lehentasunezko sektore diren aktoreen arteko (pribatu zein publiko) elkarlan ekintzak sustatzea dute xede. Eskaeren aurkezpena modu digitalean bakarrik egingo da maiatzaren 6ko 12:00ak bitartean Euroeskualdeko webgunearen [hurrengo estekan](#).

Proiektuek, gutxienez, hiru eskualde bakoitzetik bazkide bat izan beharko dute: Akitania Berria, Euskadi, Nafarroa eta pertsona juridikoek aurkeztuko dituzte, titularitate publiko zein pribatukoek. Onuradunak txandakatzea bermatu nahi denez, aurkeztu diren proiektuek izaera berritzailea izan beharko dute. Diru-laguntzaren gehiengoak proiektuaren kostu osoaren %50a hel daiteke.

Kulturaren arloan, deialdiak lehentasuna emanen dio obren sortze eta zabaltzeari, artisten mugikortasunari edo sormen industriaren elkarlanari. Hezkuntza, gazteria eta gizarte arloan proiektuak gazteen mugikortasuna, ikastetxeen arteko trukeak, euroeskualdeko gizartearen garapena zein mugaz gaindiko kultura topaketak sustatzera bideratuko dira proiektuak. Deialdiaren beste arlo bat kirola izango da, zehazki, aire librean egiten den kirola, tokiko kirolak eta kirolaren gizarte eta hezkuntza dimentsioa. Eleaniztasunari dagokionean, Euroeskualdeko hizkuntzen, euskara, gaztelania, frantsesa eta okzitaniarraren garapena sustatuko da hizkuntza hitz egiten den eremuetan hizkuntza truketak bultzatuz.

### Nafarroako 47 proiektu

2017ko martxoan Nafarroa Euroeskualdera batu zenetik, Nafarroako entitateek abian ipini diren lau deialdietan 47 proiektuetan parte hartu ahal

izan dute.

2017an, Nafarroak kultura, hezkuntza eta gazteria, eleaniztasuna eta kirolaren lehen deialdiko 18 proiektuetan hartu zuten parte. Bigarren deialdian, Euroeskualdeko ekonomiaren ardatz diren sektoreetan oinarritutako elkarlan estrategikoetan, Nafarroak bost proiektuetan hartu zuen parte.

2018ari dagokionean, kultura, gazteria eta gazte mugikortasunaren eta mugaz gaindiko kirola eta Euroeskualdeko eremuan hizkuntzak ikasteko arloan ordezkari izan zuten 19 proiektuk. Azkeneko deialdian, Nafarroak aeronautika, aurreratutako fabrikazioa, osasuna/biosasuna eta nekazaritza eta nekazaritza elikagaien industriako bost proiektuetako hiruetan lidertza izan zuen.